



HEZ-

16/17

KUNTZA

EU

PRO-

GRAMA

TABAKALERA



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

HEZKUNTZA
PROGRAMA
2016/2017



HEZ- KUNTZA PRO- GRAMA

Dantzatuko dugu?

Duela ez asko, urtebete bakarrik, Tabakalerak bere egungo egoitzaren ateak zabaldu zituen Donostiako tabako fabrika ohian. Duela ez asko, hezkuntza taldetik ekoizpen kulturala eta hezkuntza proiektuak sortzeko makineria bat abian jarri genuen, lurralde eta testuinguru hurbilenekin. Ibilbide horretan, gure lanaren helburua izan da programa oinarriak eta lan ildoak ezartzea, eta hezkuntza pentsatzeko gure izaera antzekoa dutenekin aliantzak lantzea.

Joan den irailean Tabakaleraren inaugurazioarekin batera hasitako bideak, batzuetan eromenezkoak diren jardun-erritmoak eragin ditu. Hala ere, joan den ikasturtean, hezkuntza jarduna eraldatze prozesua eta ekintza politiko gisa pentsatzeko sinergia asko topatu ditugu. Tabakalera subjektibitateak arautu eta sortzeko espazio bat da (beste edozein gune arkitektoniko bezala). Ildo horretan, iruditzen zaigu, kultura eta arte praktika hezkuntzarekin gurutzatzean lan aukerak sortzen dituela. Beraz, irudika ditzagun molde berriak esparru komun bat sor dadin. Guretzat hezkuntza da munduan geure burua pentsatzeko ardatz nagusia, ia-ia koreografia molde bat bezala, hartan astindu instituzional bat emateko, eta *gurekin dantzatu* nahi dutenak ere astintzeko.

Zenbait erronka ditugu ikasturte honetarako. Alde batetik, egonkortze bidean dauden programa batzuk sendotzea, hala nola *Kamaleoiak Gara!*, espazio horren bidez, arte praktikak eta handien eta txikien artean topaketak sortzen ditugu. Gure apustu sendoetako bat “familientzako programa” bezalako terminoei ihes egitea da, “familia” ideiarekin beraren zentzua zabaltzeko. Denon artean eraiki nahi dugun *Kameleoien* familian, batera datozen edozein haur eta helduk dute lekua. Horregatik, beste zenbait programa abiarazi ditugu. Adibidez, 0 eta 6 urte arteko haurrak eta helduak, elkarrekin, Tabakaleran egoteko espazio baten eraikuntza prozesua, metodologia ireki eta elkarlaneko batetik sortzen ari dena.

Gure beste helburu bat *Zoom*, *Hiria Hackeatu* edo *Testu-inguruan* bezalako programen bidez sortzen hasi diren taldeak indartzea da. Izan ere, pertsona ezberdinekin, harreman kolektibo eta egonkorak sustatzeko dugun interesa erakusten dute programa hauek. Azpimarratzekoa da baita ere Tabakalerako proiektu kulturalerako beste alor batzuekin transbertsalitateak eragiteko dugun helburua. Iritsi da bestalde, energia gehien bideratu dugun epe luzeako proiektuetako bati zukua ateratzeko garaia, *Mañana Goodbye*. Eraikinaren historia, konfigurazio instituzionala eta oroimena bera, publiko anitzarekin eta protagonista nagusiekin, hots, tabako fabrikako zigarrogile ohiekin, esploratzean oinarritua.



Beste programa klabe bat, urrian hirugarren edizioa hasiko duen *Eskola aldiriak* da. Donostialdeko hezkuntza komunitateari zuzendua dago eta, epe luzeko elkarlan moldeak bilatzea planteatzen du.

Aldi berean, indartu egin nahi ditugu 2014ko hasieran marraztutako zenbait lan ildo. Ikusgarritasun handiagoa emango diegu feminismoei, programa zehatzekin, nahiz eta ildo honek, pertsonekin edozein harreman hasteko orduan izaera transbertsala duen. Zaintzek eta etika feministek, irakasleekin azken programan jorratu genituen gaiak hain zuzen ere, erdigunean jarraitu behar dute, norik bere burua enuntziatzeko gakoak diren heinean. Denok bizitzeko egokia den mundu bat pentsatzeko, ulertu egin behar da badirela botere mekanismoak eta pribilegioak, eta horiek agerian jartzea garrantzitsua da.

Horrenbestez, lanean jarraituko dugu, eta egiten duguna nola egiten dugun pentsatzeko, programak ebaluatzeko, geroko lanerako estrategiak definitzeko eta komunitateekiko sareak sendotzeko denbora izatea espero dugu. Izan ere, Tabakalera bezalako kultura garaikidearen nazioarteko zentro batek katalizatzaile modura funtzionatu behar baitu, bertatik gure hiria eta gure instituzioak era jasangarrian bizitzeko. Pentsa dezagun komuna dugunetik koreografia bat sortzeaz. Pentsa dezagun elkarrekin dantzatzeaz eta erritmo kolektiboak bilatzeaz.

Tabakalerako hezkuntza taldea: Leire San Martin, Nerea Hernández eta Artaziak (Ana Revuelta, Mertxe Petxarroman, Ane Zamora).



CAPP Lantegia (Gazteekin arte kolaboratiboa), 2016 uztaila

LAN IL- DOAK

01 /

ERAKUSKETE- KIN ELKARRIZ- KETAN

Nola sortu elkarrizketak erakustaretoetan? Nola gurutzatu arte praktikaren alorreko jakintza espezifikokoak halakoak ez direnekin? Nola artikulatu ikerketa prozesu kolektiboak esparru horretan?

Erakusketekin, erakusketetatik eta erakusketetan lan egiteak, haiek sistema dinamiko eta iragazkor moduan ulertzea dakar, bertan jakintza gurutzaketak probokatzeko. Erakusketak eremu desberdinetatik irakurri eta aktibatu ditzakegun konstelazioak dira, eta hauen bitartez esanahi berriak sortu ditzakegu.

02 /

PEDAGOGIAK ETA ESPAZIO PUBLIKOA

Zer potentzial dute espazio publikoek hezkuntzari dagokionean? Portaerak baldintzatu eta ekintzak mugatu ditzakete? Nola jardun dezakegu leku horietan kolektibitateak eraikitzeko?

Etengabeko ikasketa prozesuak gauzatzen diren lekuak dira espazio publikoak. Maniobra arkitektoniko eta urbanistikoek espazio publikoan garatzen diren jarrera batzuk normalizatu eta hegemoniari erantzuten ez dioten beste batzuk kontrolatzeko ahalmena dute. Gune publikoak batera bizi eta habitatu behar dira, eta hezkuntza, hauen erabilera eta eraldaketa posibleak pentsatzeko espazio on bat da.

04 /

FEMINISMOAREN ETA GORPUTZAREN PEDAGOGIAK

Jakintza guztiak maila berean kokatzen dira, edo batzuk ikusezin bihurtzen dira? Nola aktibatu dezakegu gorputzaren entzuketa, eta leku horretatik ikasi? *Bizitza eta zaintzak erdigunean jartzeak* duen garrantziaz ari garenean, zertaz ari gara?

Badira zilegitasunik ez duten jakintzak eta ezagutzak, nork bere burua enuntziatzeko interesgarriak direnak, kategoriak deseraikitzeke baliagarriak direlako. Lehentasunezkoa da gaur egun ikasketa komun bat aldarrikatzea zaintzen bidez, bizitza eta gorputza intelektuaren maila berean jarriz. Harremanak izateko molde berriak *gorputzea*, hartara hierarkia tradizionalak iraultzeko.

03 /

HEZKUNTZA ETA IKUS-ENTZUNEZKO NARRATIBAK

Ikusteko, entzuteko edo narratzeko modu nagusien alternatibak sortu al daitezke? Era kritikoan pentsatu daiteke sortu eta hedatzen ditugun irudien inguruan?

Ikus-entzunezko praktikek mundu berriak sortzea ahalbidetzen dute. Film bat gai da subjektibotze prozesuak, eta aldi berean baita irudikapen kolektiboak ere, sortzeko. Narratzea, jokatzeko, entzutea edo begiratzea jarrera hartze politiko gisa ulertu daitezke.

05 /

ESKOLA: HEZKUNTZA IKER- KETA GISA

Zer ikerketa praktikak gertatzen dira hezkuntzan kokatutako ezagutzatik? Nola egin daiteke gogoeta gure praktiken inguruan hezkuntza lanaren beraren bidez? Zer ekintza eta ikerketa metodologia interesatzen zaizkigu alor horretan?

Hezkuntzak etengabeko gogoeta eta ebaluazio prozesu bat izan behar du. Ildo horretan, proposatzen dugu hartaz pentsatzea ekoizpen kultural eta ikerketa kolektibo modura, baita instituzionalitate molde berrien esperimentazio prozesu modura ere. Instituzioaren *kanporantz* eta *barrurantz* pedagogia egitea.



- 12 **ERAKUSKETEKIN ELKARRIZKETAN**
- 18 **MAÑANA GOODBYE**
Elkarrekin lan egiten duen emakume taldea
- 22 **HEZKUNTZA KOMUNITATEA ETA ELKARTEAK**
- 32 **HIRIA HACKEATU**
Gazteak, hiria eta *maker*-ak
- 36 **KAMALEOIAK GARA!**
Erakusketak, zinema, lantegiak eta 0-99 programak
- 42 **ZOOM**
Ikus-entzunezko laborategia 16-21
- 46 **0-6 GUNEA**
Elkarrekin sortu, lan egin eta hazi
- 50 **FEMINISMOAREN ETA GORPUTZAREN PEDAGOGIAK**
- 54 **ESKOLA**
Hezkuntza ikerketa gisa

a u r - k i b i - d e a





- LAN ILDOA
- PROIEKTUA
- PROGRAMA



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

12 > 17

erakus-

ketekin

elkarriz-

ketan



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA



ERAKUSKETE- KIN ELKARRIZ- KETAN

Interpretatuak eta ibiliak izateko orduan, nolabaiteko malgutasuna ahalbidetzen duten espazioak dira erakusketak; arte praktikaren espezifikotasunari zuzenean hurbiltzeko guneak ere badira. Erakusketa aretoak esanahi berriak gehitu eta era askotan bisitatu daitezkeen sistema iragazkor moduan ulertzea proposatzen dugu. Artearen beraren semantikatik gurutzaketak eragin daitezke gure interes partikularrekin. Gaingitu ditzagun bisita gidatuaren formatua eta erakusketak ulertzeko moduak, denon artean zentzu berriak gaineratzeko.

Datorren 2016-17 ikasturtean bi erakusketa kolektiboren edukiak ezagutu eta horietan gehiago sakondu ahal izango dugu:

AGENCY OF LIVING ORGANISMS

(Organismo bizien agentzia)

2016/10/21 > 2017/02/12

Pauline Doutreluingnek komisariatua

#ekologia #lan kolektiboa #performance #erakundeak #zientzia

Agency of Living Organisms (Organismo bizien agentzia) proiektuaren helburua da gaur egungo egitura sozial urbanoen eta naturaren arteko harremanak aztertzea, era artistiko eta kolektiboan, epe laburreko eskultura «biziak», ekintza mikropolitikoak eta interbentzioak antolatzearen bidez. Gizakiekin alderatuta, landareek eta beste organismo bizi batzuek zentzumenarekin lotutako ezaugarri izugarri sofistikatuak daukate; haiekin elkar eragiten dute eta haien inguruan existitzen dira, artearekin gertatzen den modu berean.

HIRU ZIRKULA- ZIOAK: SUBSTAN- TZIA AKTIBOA

2016/02/24 > 2017/06/11

Komisario taldea: Pablo Lafuente, Max Jorge Hinderer Cruz eta Oier Etxeberria.

#historia #merkataritza #elikadura #postkolonialismoa #modernitatea

“Substantzia aktiboek” (ordena fisiologikoaren halako aldaketa bat ahalbidetzen dituzten espezia, narkotiko, antibiotiko eta bestelako bizigarriek) marrazten dituzten ibilbideak heterogeneoak eta ia-ia infinituak izanagatik ere, posible da haiek, planetako jarduera eta bizitza oro egituratu eta eragiten duten hiru dimentsio zehatzen pean kokatzea: giza organismo barruko zirkulazioa, salgaien zirkulazio globala eta lurtartasunetik harago zirkulazio kosmikoa esaten dioguna. Askotariko praktika eta geografietatik datozen artistek egindako lanetatik eta testuinguru hurbilaren artxibo eta bildumak aztertzeak abiatuta, erakusketak kontzientziaren eta errealitatearen artean, mugimendu horien barruan, finkatzen diren lotura konplexuak esploratzen ditu.

* Eskola taldeentzako edota elkarreentzako erakusketei lotutako jarduera programaren inguruko informazio gehiago 26. orrian

BISITA SOLASAL- DIAK ERAKUSKETE- TARA

#solastu #esploratu #ibilbideak

Bisita solasaldien bitartez Tabakalerako erakusketetako piezetara, planteatutako gaitara eta komisarioen diskurtsoetara hurbiltzea proposatzen dugu. Arte garaikidearekin harreman zuzena egiteko ibilbideak dira hauek, eta interesa duen edozein pertsonak parte har dezake bertan.

DATAK:
Hilabete bakoitzeko 1. eta 3. asteazkenetan.

ORDUTEGIA:
18:00 / 19:00

HIZKUNTZA:
EU / ES

ZHIZ zerbitzua
Zeinu Hizkuntzako Interpretazio zerbitzua eskuragai alde aurretik eskatuta.

 **Aldez aurretiko izen-ematea**



BISITA ESPERIMEN- TALAK

#esperimentatu #hibridatu (ezagutzak) #solastu

Bisita hauek hezitzaileak, zientzialariak, biologoak, historialariak, antropologoak, ikasleak... gonbidatzea proposatzen dute erakusketetan interpretazio berriak egin eta esanahi geruzak gainera ditzaten. Helburua erakustaretoetan ustekabeko topaketak eragitea da, bestela gertatuko ez liratekeen bidaiak eta ibilbideak ahalbidetzea.

DATAK:
Asteazken bat
hilero.

ORDUTEGIA:
18:30

HIZKUNTZA:
Gonbidatuen arabera.
Kontsultatu:
www.tabakalera.eu

 **Aldez aurretiko
izen-ematea**

TESTU-INGURUAN ERAKUSKETEI LOTUTAKO IKAS- KETA TALDEA

#ikasketa taldea #ikertu #partekatu #(elkar) #ezagutu

Testu-inguruan Tabakalerako erakusketekin batera funtzionatzen duen ikasketa talde bat da. Hilero biltzen gara, erakusketen edukietan sakontzeko eta ideia zein eztabaida abiarazteko balioko diguten tresna eta baliabide kolektiboak sortzeko. Denetarik materialak berrikusten ditugu, hala nola testuak, filmak edo erakusketetako piezak edo haiekin erlazionatuta daudenak. Helburua, pixkana-pixkana geure burua arte garaikideari dagozkion gaietan heztea da.

DATAK:
Hilabete bakoitzeko 2.
asteartean, hiru saio
erakusketa bakoitzeko

ORDUTEGIA:
18:30

HIZKUNTZA:
EU / ES

NORENTZAT:
*Edozein pertsona
interesatari zuzendua.
Ez da beharrezkoa arte
garaikidean aldez aurretiko
ezagutzarik izatea.*

 **Aldez aurretiko
izen-ematea**



Bisita experimental, 2016 maiatza



18 > 21

ma -

ñana

good -

bye

**ELKARREKIN LAN EGITEN
DUEN EMAKUME TALDEA**



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

MAÑANA GOODBYE



ELKARREKIN LAN EGITEN DUEN EMAKUME TALDEA

2015/02 > 2016/11

#oroimena #istorioak #instituzionaltasuna #feminismoa #artxiboa

2015eko otsailaren eta 2016ko azaroaren artean bi artistekin, tabako fabrikako langile ohien talde batekin eta aktorea talde batekin lan egin dugu *Mañana Goodbye* proiektuan. Hamabi kapituluko serie bat da, eta garai bateko tabako fabrika egungo Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa bihurtu zeneko ekoizpen ereduaren aldaketa aztertzen du. Airean bi galdera garrantzitsu: lanari dagokionean, zer behar dugu iraganetik? Eta nola eta nondik hitz egin memoriaren inguruan? *Lantegitik atera eta gero* izenburua daraman jarduera programa batek lagun egiten dio proiektuaren bigarren faseari.

Mañana Goodbye Sotoan bisitatu daiteke, bertan baitago ikusgai ikus-entzunezko instalazio moduan, eta atal berri bat gaineratzen zaio hiler, 2016ko iraila arte. Une horretatik aurrera, toki berean instalatuko da lana, eta zenbait hezkuntza programaren bidez aktibatuko da.

HISTORIA, OROIME- NA ETA LANA Tabakalera ezagutu

#fabrika #historia #zigarrogileak #oroimena #lana

Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak hiriko tabako fabrikari dauka egoitza, 1913an sortutako eraikinean. Bisitaldiok honako ardatz hauek lantzen dituzte besteen artean: *Mañana Goodbye* proiektua, espazio arkitektonikoaren historia eta berezitasuna, bertako langileen oroipen eta esperientziak, eta birmoldaketaren ostean sortutako gune eta erabilera berriak.

* *Elkarreentzako Mañana Goodbye* programaren inguruko informazio gehiago 27. orrian.

ELKARREKIN LAN EGITEN JARRAITZEN DUGU?

Mañana Goodbye prozesuan partekatutako esperientzietatik abiatuta, espazio bat martxan jarriko dugu Tabakalerako egungo eta lehenagoko langileentzat.

Proiektu honen bidez dagoeneko sortutako lana eta harremanak bilduko ditugu, eta aldi berean gurekin batera leku honen iraganaz eta orainaz gogoeta egiten jarraitu nahi duten aliatu berriak bilatuko ditugu. Zabalduko dugun prozesuan tabako fabrikako langile ohiak gonbidatuko ditugu bizitzako esperientziak eta memoria partekatu eta trukatzeko.

DATAK:
Hilabete bakoitzeko
2. eta 4. larunbatetan

ORDUTEGIAK:
11:00 EU / 12:00 ES

HIZKUNTZA:
EU / ES

ZHIZ zerbitzua
Zeinu Hizkuntzako
Interpretazio zerbitzua
eskuragai aldez aurretik
eskatuta.

 **Aldez aurretiko**
izen-ematea

h e z k u n -

t z a k o m u -

n i t a t e a

e t a e l k a r -

t e a k



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

HEZKUNTZA KOMUNITATEA ETA ELKARTEAK



Tabakaleraren eta hezkuntza komunitatearen artean harreman iraunkor bat ahalbidetzeko xedez, zenbait programa proposatzen ditugu askotariko denbora eta premietara moldatu ahal izateko. Gure ustez, talde, eragile edo kolektibo bakoitza hezkuntza ekosistema oso anitz baten parte da, eta, ildo horretan, era malgu batez lan egin nahi dugu.

Hala, 2016-17 ikasturtean arte garaikidearen inguruan lan egingo dugu, eskola, talde, elkarte... bakoitzak, bere berezitasunetan oinarrituta, aukera ditzakeen formatu eta metodologietatik abiatuta.

Aztertuko ditugun gaiak arte praktikaren eta metodologia eta formatu anitzen bidezko ikasketa prozesuen arteko gurutzaketekin zerikusia dute. Tabako eraikin ohitik irtengo gara ikasgeletan lan egiteko, asmoa izanik interferentziak sortzea hezkuntza espazioetatik zentro kulturalera, eta alderantziz. Gaur egungo sorkuntzan sakonduko dugu zenbait bitartekoz: hala nola, espazio publikoan egindako interbentzioak, lantegiak, zine saioak, jarduera esperimentalak edo paseoak erakusketetan barrena.

IBILBIDE TAILERRAK

LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA BATXILERGO TALDEEI ETA ELKARTEEI ZUZENDUAK.

Tabakalera lehen hurbiltze bat ahalbidetzen dute *Ibilbide tailerrek*. Saio dinamiko hauetan taldeen behar eta interesetara moldatzen gara eta haien parte hartze aktiboa bilatzen dugu. Hala, Tabakaleraren programa kulturalera edukiekin batera, ikasketa egoera desberdinak, elkarrizketak, ikerketa praktikoak eta jolas unek sortzen dira:

TABAKALERA ESPLORATUZ!

LEHEN HEZKUNTZAKO TALDEEI ZUZENDUTAKO LANTEGIA.


#espazio publikoa #jolasa #arkitektura #hacker/maker

Eraikineko zenbait gunetatik egindako ibilbide batetik abiatuta, espazio publikoaren erabilera eta pertzepzioan sakontzen da, baita eguneroko tokiak bizi ditugun eta bertan jokatzeko dugun moldeetan ere. Zenbait dinamika eta jolasen bidez, lantegi honek Tabakalerako guneak eraldatzea eta haien erabilera kolektiboaz hausnartzea proposatzen du.

DATAK:
Asteazkenetik ostiralera.

ORDUTEGIAK:
10:00 - 14:00
16:00 - 18:00

IRAUPENA
2 ordu
 Aldez aurretiko
izen-ematea



Ibilbide tailerrak, 2016



ORGANISMO BIZIAK

**“AGENCY OF LIVING ORGANISMS”
ERAKUSKETAREKIN LOTUTAKO
LANTEGIA**

DATAK:
2016/10 > 2017/02

LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO
ETA BATXILERGO TALDEEI ETA ELKARTEEI
ZUZENDUA.

#arte **#zientzia** **#organismo** **#artista** **#ekologia** **#natura**

Organismo biziak lantegia *Agency of Living Organisms* (Organismo biziaren agentzia) erakusketaren barruan sortu da. Nola zientzian hala artean, sareak eta sistemak artikulatzeko moldeak bezalako ideietatik abiatuta, performance dinamikekin, eskultura bizidunekin edo gaien plastizitatearekin lan egingo dugu.

DATAK:
2017/02 > 2017/06

BIZIGARRIAK

**“HIRU ZIRKULAZIOAK: SUBSTANTZIA
AKTIBOA” ERAKUSKETAREKIN LOTUTAKO
LANTEGIA**

LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA
BATXILERGO TALDEEI ETA ELKARTEEI ZUZENDUA.

#txokolatea **#azukrea** **#tabakoa** **#kafea** **#geografia** **#elikadura**

Bizigarriak lantegiaren bitartez jaten ditugun elikagaiak bezalako natur baliabideen jatorria ezagutzea eta haien kontsumo, banaketa edo ekoizpen moldeen gainean gogoeta egitea proposatzen dugu. Landaguneak esploratuko ditugu, esperimentatu egingo dugu landare, fruta eta haziekin, edo berezko errezeta berriak asmatu sukaldatuko dugu. Hori guztia erakusketan topatuko ditugun arte prozesu eta piezetatik abiatuta.

MAÑANA GOODBYE

**ELKARREKIN LAN EGITEN DUEN
EMAKUME TALDEA**

ELKARTEEI ETA HELDUEI ZUZENDUTAKO LANTEGIA.

#fabrika **#historia** **#memoria** **#arkitektura** **#lana** **#istoarioak**

Tabakalerako Sotoan kokatutako *Mañana Goodbye* ikus-entzunezko instalaziotik sortu da lantegia. Proiektu honetatik ateratako materialen bidez lana, oroimena edo historia bezalako nozioen inguruan gogoeta egitera eramango gaituzten dinamika eta jolas sorta bat gauzatuko dugu. Tabako fabrika kultura garaikidearen nazioarteko zentro berri bat bihurtzeko era kolektiboan gure egunerokotasunaz pentsatzea ahalbidetuko dugu.

* Informazio gehiago *Mañana Goodbye* inguruan, 20. orrian.

REC: ZINEMA ESPERIMENTALA

BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA BATXILERGOKO
TALDEEI ZUZENDUTAKO ZINE LANTEGIA.

#zine **esperimental** **#irudikapena** **#ikusizko kultura** **#bideoklipa**

Tabakalera dauden zinema esperimentaleko funtsetatik abiatzea proposatzen dugu lantegi honetan. Hautatutako material batzuen ikusketatik abiatuta, ikus-entzunezkoak identitateak eraikitzeko dituen moldeen inguruan gogoeta egingo dugu eta hegemonikoak diren ikusteko modu alternatiboak ezagutu eta proposatuko ditugu. Lantegiak parte praktikoa ere izango du.

DATAK:
Ostiraletan
2016/11 > 2017/03

ORDUTEGIAK:
10:00 - 12:00



Kamaleoiak gara! Erakusketa, 2016 otsaila



ELKAR-EKIN EPE ERTAINEKO PROGRAMA

DONOSTIALDEKO IKASTETXE ETA
ELKARTEEI ZUZENDUA.

#ko-diseinatu #partekatu #esperimentatu #prozesuak

Elkar-Ekin epe ertaineko programa da, Donostialdeko eskola eta elkarteak Tabakalerako hezkuntza taldearekin batera ko-diseinatu eta garatzen dena.

Ez dago aldeaz aurretik gai espezifiko edo itxirik, taldearen behar partikularren eta Tabakaleraren programa kulturalaren artean loturak bilatzen dira. Hala, curriculum, ikasgaiak edo interes zehatzak arte praktika eta hezkuntza metodologiarekin konbinatzen dira.

Programa honek hiru eta bost saio arteko kopurua izan dezake. Aurretik bilera bat egingo da Tabakalerako hezitzaile baten eta taldeko arduradunaren artean, saioen diseinua partekatu eta gai-oinarriak ezartzeko. Bigarren bloke batean, aurretik planifikatutako saioen garapena gauzatuko da, eta saioak ikastetxean zein Tabakalerako guneeetan garatu daitezke. Azkenik, azken saio batean egindako lana ebaluatuko da.

DATAK:

Taldeko arduradunarekin definituko dira.

ORDUTEGIAK:

Taldeko arduradunarekin definituko dira.

IRAUPENA:

3-5 lan saio. (Tabakalerako saioek 2 ordu iraungo dute; ikasgelako lana, berriz, talde bakoitzaren ordu premietara egokituko da.)

Aldez aurretiko izen-ematea

ESKOLA ALDIRIAK EPE LUZEKO PROIEKTUEN DEIALDIA

DONOSTIALDEKO IKASTETXEI ZUZENDUA

#ko-diseinua #komunitatea #praktika kolaboratiboak
#espazio publikoa

Eskola aldiriak eskolako, auzoko edo hiriko espazioetan artea eta hezkuntza uztartzen dituen proiektu kolaboratibo bat garatzeko urtero egiten den deialdia da. Lan moldeak birpentsatzeko eta hezkuntza komunitatea sendotuko duten ikasketa prozesuak abiarazteko aukera bat da. Epe luze aliantza eta, ikasketa prozesuak ahalbidetuko dituzten harreman iraunkorrak izateko dugun interesa islatzen du programa honek.

Deialdia 2013tik garatu dugun *Pedagogiak eta espazio publikoa* lanildoaren barruan kokatzen da, zeina *Auzoko Hitzak* proiektuaren esperientziarekin hasi baitzen (Egiako hiru eskolekin egina 2014-2015 ikasturtean).

2015-2016 ikasturtean *Ikastolatik auzora, auzotik ikastolara* proiektua garatu zen, Antiguako Jakintza Ikastolak aurkeztua.

DATAK:
2015 >2016 ikasturtea
DEIALDI IREKIA
2016/07/01 > 2016/10/21
 Deialdiaren oinarriak eta izen-ematea
www.tabakalera.eu



Elkar-ekin (Berritzu Hezkuntza Elkarte), 2016 uztaila



IRAKASLEEKIN PROGRAMA

IRAKASLEEI, HEZITZAILEEI, ETA HEZKUNTZAN,
PEDAGOGIAN ETA BITARTEKARITZAN DIHARDUTEN
PROFESIONALEI ZUZENDUA.

#hausnartu #ikertu #partekatu #transdiziplinarra

Programa honek irakasleen eta Tabakalerako hezkuntza taldearen artean jakintzak eta esperientziak partekatzeko zenbait topaketa barne hartuko ditu. Topaketa horiek elkarrekiko ikasketa prozesuak sortu, dauden premiak eta interesak ezagutu eta hezkuntza tresna irekiak ahalbidetzeko espazio moduan ulertzen ditugu. Horretarako, elkarrizketa esparru bat eskaintzen dugu hezkuntzaren eta kultura garaikidearen artean.

Ikasturtean hiru mintegi izango dira eduki eta metodologia berrien inguruan ikertzeko. Saiotako gaiak aldatuz joango dira: lehena eskoletan artistekin espazio komunei dagokienez elkarlanean aritzeko aukerak esploratzean zentratuko da; bigarrenak ekologiari eta hezkuntzari dagozkien gaiak aztertuko ditu; eta hirugarrenak erronka pedagogikoak aztertuko ditu aniztasun funtzionalarekiko gurutzaketan, lan hau pedagogia feministen eta gorputzaren pedagogien lerroarekin erlazionatuz. Gai horiek urgentziazkoak direlakoan identifikatu dituzte aurreko lantegietan parte hartu duten irakasleek.

Gainera, ikasturte honetan DSS2016EUren lekukoa hartuko dugu UPV/EHUrekin elkarlanean garatutako ARTikertuz proiektuaren bidez. ARTikertuz lan eta ikerketa talde bat da. Bertan irakasleak biltzen dira ikasgeletan arte eremutik sortzen diren interbentzio eta ekintza aukeren inguruan gogoeta egiteko, ezagutza hori hezkuntza formalean nola aztertzen den inguruan posizio kritiko eta gogoetsu batetik abiatuta.

Ez da beharrezkoa topaketa
guztietara bertaratea.

 Aldez aurretiko izen-ematea

www.tabakalera.eu

1 TOPAKETA

• 2016/10/14>15

Eskola laborategia: geure espazioak elkartzen.

Ttiti Studiorekin elkarlanean antolatutako topaketa.

Eskola testuinguruko espazio publiko-komunen erabileren inguruan egingo dugu lan. Espazio horiek nola bizi, eraldatu eta eraiki elkarlanean, prozesu horiek ikastetxeetako hezkuntza proiektuaren beraren barruan txertatuz.

2 TOPAKETA

• 2017/02/08>09 | 17:00 - 20:00

Marc Badalekin elkarlanean.

Hiru zirkulazioak: substantzia aktiboa erakusketari lotuta ekologia eta jasangarritasun gaiak aztertuko ditugu, eta ikertuko dugu zer aukera dauden landa eremuaren eta hiriaren artean jakintza gurutzaketak sortzeko, horiek gure ikasleei etika agroekologiko bat ekarriko dielakoan.

3 TOPAKETA

• 2017/07/06>07 | 9:00 - 14:00

Topaketa honetan erronka eta esperientzia pedagogikoak landuko ditugu aniztasun funtzional eta intelektualean.

EGIA HEZITZAILEA

#auzoa #espazio publikoa #sarea #ikertu #lan taldea #elkarlanean jardun

Pedagogiak eta espazio publikoa lerroaren barruan, hilabeteak daramatzagu gune komunen beste konfigurazio batzuk eta hezkuntza alorrekin duten erlazioa artikulatu eta birpentsatzeko moduen inguruan gogoeta egitea ahalbidetzen diguten lan talde, sare eta proiektuetan parte hartzen. Talde horietako bat *Egia Hezitzailea* da. Oinherri saretik sortua. 2015ean hasi ginen prozesu horretan parte hartzen. Lan taldea Egia auzoko ikastetxeek (Aitor Ikastolak eta Maria Reina Eskolak), hezkuntza eta kultura alorreko elkarteek (Antxeta ttan ttakun aisialdi taldea, Bagera euskara taldea, Haurgunea, Egia Bizirik elkarte...) eta administrazioari lotutako pertsonen osatzen dute.

Egia auzoko gune publikoa birpentsatzea proposatzen du Egia Hezitzaileak, haur eta gazteen behar eta bizipenetatik abiatuz leku komunak bizitzeko moduak birpentsatzea ahalbidetuko duten zenbait eraldaketa gauzatuta.



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

32 > 35

h i r i a

h a c k e a t u

**GAZTEAK, HIRIA
ETA MAKER-AK**



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

HIRIA HACKEATU



GAZTEAK, HIRIA ETA MAKER-AK

#hacker-maker #hiria #teknologia digitalak #Hirikilabs #DIY

Gaur egun hiria egiteko, partekatze eta komunitatean lan egiteko modu berriak esperimentatzen ari dira. Auzoak, kaleak eta espazio publikoak ikasketa potentzial handia duten lekuak dira. Aldi berean, *hacker* eta *maker* metodologiek hezkuntza prozesuak, kode irekiko ekoizpena eta elkarlana gurutzatzen dituzte, hartara gure hiriak pentsatu, sortu eta eraldatzeko moduak ahalbidetuz.

Lantegi hau 12 eta 17 urte arteko gazteei zuzendua da, eta oporraldietan gertatzen da. *Hiria Hackeatu* *hacker* eta *maker* filosofietatik abiatzen da, Hirikilabs Tabakalerako kultura digital eta teknologiazko laborategiarekin elkarlanean. Lantegi bakoitzean parte hartzen duen gazte taldearekin batera, ingurumena arakutzen dugu begirada kritiko batetik, eta eraldaketak proposatzen ditugu elkarlanean eta teknologia berrien laguntzaz sortutako artefaktuen bidez.

Lantegi intentsiboez gain, ikasturte honetan *Hiria Hackeatu*ko aurreko edizioetan parte hartu duten gazteen interesari irteera ematea planteatu dugu, ikasketa prozesuei jarraipena emateko helburuz. Hilero bilduko gara, taldeko premietatik sortzen diren jarduerak aurrera eramateko.

DATAK:

Negua: 2016/12/27>30

Udaberria: 2017/04/18>21

Udara: 2017/07/11>14

ORDUTEGIAK:

10:00 - 14:00

HIZKUNTZA:

EU

 Aldez aurretiko
izen-ematea



Hiria Hackeatu, 2016 uztaila

kama-

leoiak

gara!

ERAKUSKETAK, ZINEMA,
LANTEGIAK ETA 0-99
PROGRAMAK





KULTURA
GARA IKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA



KAMALEOIAK GARA!

ERAKUSKETAK, ZINEMA, LAN- TEGIAK ETA 0-99 PROGRAMAK

Kamaleoiak gara! arte garaikidearen inguruan haurrek eta helduek elkarrekin gozatzeko jardura programa bat da. Tabakalera elkarrekin bizi, jakintzak partekatu eta belaunaldien arteko komunitate batean ikasi nahi duten amak seme-alabekin, aitak ilobekin, bilobak amonekin... Programa, osatuagoa aurkezten da 2016-17ko ikasturterako: *Kamaleoiak Gara! Programa eta Lantegiari* eusten diogu, eta ikus-entzunezkoarekin esperimentatzeko, hileroko saioak gaineratzen ditugu.

KAMALEOIAK GARA! PROGRAMA 0-99

#performancea #musika #arte biziak

Hilero larunbat batean jardura programa bat eskaintzen dugu txikiak eta helduek elkarrekin goza dezaten. Artista, performer, musikari, dantzari, zinemagile, narratzaileen... proposamenak dira, arte praktikak hurbiltzen dituztenak *arte bizietatik* edozein motatako komunitateetara, normalean gertatzen ez diren topaketak sortzeko helburuz.

DATAK:

Larunbat bat hilean.
Datak www.tabakalera.eu
orrian kontsultatu.

ORDUTEGIAK:
17:00 - 18:00

HIZKUNTZA:

Gonbidatutako pertsona
edo kolektiboaren
arabera.

Aldez aurretiko
izen-ematea

HURRENGO DATAK

• 2016/09/10

Denok festara!
DJ Kamaleoiak gara!

• 2016/10/08

Irakurritz - Zirkua
Shakti Olaizola

• 2016/11/12

KUBIK antzerkia
Teatro Paraiso Konpainia

• 2017/01/03>05

**Collagea eta ekintza - Collage
eta performance lantegia**
Macarena Recuerda Sheperd

• 2017/01/28

Lur away - Arte biziak
Sra. Polaraiska

KAMALEOIAK GARA! ERAKUSKETAK 5-99

HELDUEKIN DOAZEN 5 ETA 10 URTE
ARTEKO NESKA-MUTILEI ZUZENDUA.

#lantegia #esperimentatu #esploratu

Erakusketek helduak eta txikiak arte praktiketara hurbil du eta elkarrekin gozatzeko aukera eskaitzen dute. 5 eta 99 urte arteko pertsonei zuzendutako lantegi hauen bidez Tabakalera hezitzaileekin batera, jolastea, ibiltzea, parte hartzea, eta era dinamikoan erakusketa aretoetan dauden arte piezak, objektuak eta diskurtsoak aktibatzea proposatzen dugu.

HURRENGO DATAK

• 2016/09/18

• 2016/10/30

• 2016/11/27

• 2016/12/18

DATAK:

Hilabete bakoitzeko 3.
igandean (baldin eta
erakusketa badago).

ORDUTEGIAK:
11:00 - 12:30

HIZKUNTZA:
EU

Aldez aurretiko
izen-ematea



KAMALEOIAK GARA! ZINEMAN 5-99

HELDUEKIN DOAZEN HAURREI ZUZENDUA.

#zinema #lantegia #esperimentatu #ezagutu #sortu #bideoa

Hezkuntza eta ikus-entzunezko narratibak gure lan ildoarekin sintonian, datorren ikasturtean *Kamaleoiak Gara! ZINEMAN* programa egonkortzea proposatzen dugu eta horrela belaunaldien arteko topaketak ahalbidetzea ikus-entzunezko esperimentalekin. Zinemak potentzial hezitzailea duelakoan, Tabakalerako zinema aretoan film laburren saio bat ikustea, eta ondoren lantegi bat, zeinean ikusitakotik eratorritako gai eta tekniketarik abiatuta lan egiteko lantegi bat proposatzen dugu.

DATOZEN DATAK

- 2016/09/11
- 2016/11/06
- 2016/12/11

DATAK:
Igande bat hilean.

ORDUTEGIAK:
Proiektzioa 12:00 - 12:30
Tailerra 12:45 - 13:30

HIZKUNTZA:
Tailerra EU
Proiektzioak EU/ES

TAILERRA:
 Aldezkurritako
izen-ematea

KAMALEOIAK GARA! NONDIK DATOR ZURE GOSARIA? 5-99

#gosaria #esploratu #elikadura #dastatu
#esperimentatu

Nondik dator zure gosaria? Zenbat kilometro ibili ditu zure mahairaino iritsi arte? Zer historia gordetzen du barruan? Hezkuntza alorretik bat egiten dugu *Bizigarriak: zirkulazioa eta euforia* proiektuarekin, normalean kontsumitzen ditugun elikagaien inguruan arakatzeko eta haien jatorrian, ekoizpen prozesuan eta balizko eraldaketetan sakontzeko.

HURRENGO DATAK:


- 2016/10/01
 - 2016/11/12
- Nondik dator txokolatea? Gominolak!!**

DATAK:
Datak www.tabakalera.eu
orrian kontsultatu.

ORDUTEGIA:
11:00

HIZKUNTZA:
EU/ES

Aldezkurritako
izen-ematea



Kamaleoiak gara! Nondik dator zure gosaria?, 2016 ekaina




KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

42 > 45

z o o m

**IKUS-ENTZUNEZKO
LABORATEGIA 16-21**





KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

ZOOM

IKUS-ENTZUNEZKO LABORATEGIA 16-21



#lan taldea #zinema #esperimentatu #partekatu #bideoa

16 eta 21 urte artean dituzu? Zinema eta ikus-entzunezkoak interesatzen zaizkizu? Zenbat aldiz atzeman duzu zeure burua filmetako elkarrizketak eta eszenak errepikatzen? Interes horiek zure adineko beste batzuekin partekatzeko gogoia duzu?

Ikus-entzunezkoetan interesatuta dauden 16 eta 21 urte arteko gazteek osatzen dute *Zoom* taldea. Gure ustez, hori da adin gakoa, orduan eraiki eta bistarazten baitira neurri handi batean bideoaren, argazkigintzaren edo soinuaren alorretik iritsitako auto-errepresentazio moldeak. Arte praktikak esparru ona izan daitezke subjektibotze prozesu horiekin bat egiteko, eta baliagarriak izan daitezke gazteek erabiltzen dituzten sareetan eskuarki zirkulatzen duten mainstream, publizitate eta merkataritza alorreko korronteen erreferente alternatibo gisa.

Lan ildo hau 2014an sortu zen, eta eutsi egin diogu bere hezkuntza potentzialagatik eta Gipuzkoako gazte batzuegan eragin duen interesagatik. Iruditzen zaigu bai ikusi eta ekoizten diren ikus-entzunezko materialek, bai taldearekin garatzen dugun lanak alor ezin hobea osatzen dutela bertan ikasketa prozesuak ahalbidetzeko.

NORTZUK PARTE HARTU DUGU ZOOM TALDEAN 2015-16 IKASTURTEAN?

<http://zombies.tumblr.com/>

Ane Macicior, Irati Rodriguez, Irati Peluaga, Itsaso Caballero, Itziar Suberbiola, Nahia Borrega, Raul Mihai, Nora Goyalde.

ZER EGIN DUGU?

Tabakalerako ikus-entzunezkoen alorrekin batera, programazio ildo batean parte hartu dugu, hilean film bat eskainiz *Aro Atomikoa* zikloaren barruan. Antonio Macarro edo Jaume Ferrere bezalako artisten lantegietan parte hartu dugu. Trukeak eta bidaiak egin ditugu CA2Mko Equipo SUB21 gazte taldearekin. Tabakalerako erakusketak ezagutu ditugu. Ikus-entzunezko materialak ikusi ditugu, eta geure bideoak sortu ditugu. Barre egin dugu eta taldea sortu dugu. Gazteentzako saio bat ere antolatu dugu UD-HA Terrazan, Tabakalerako zabaltzan.

ZER EGIN BEHAR DUT URRITIK AURRERA TALDEAN PARTE HARTZEKO?

Parte hartu nahi baduzu, idatziguzu hona hezkuntza@tabakalera.eu

DATAK:
2016/10 > 2017/ 06

ORDUTEGIAK:
Ostegunetan 16:00

IRAUPENA:
2h 30'

 **Aldez aurretiko
izen-ematea**



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

46 > 49

EU / Hezkuntza programa / Tabakalera 2016/2017

0 - 6

E s p a -

z i o a

**ELKARREKIN SORTU, LAN
EGIN ETA HAZI**





KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

0 - 6 GUNE A

ELKARREKIN SORTU, LAN EGIN ETA HAZI



#lan taldea #sarea #birpentsatu #partekatu

0-6 Gunea elkarlan eta diseinu proiektu ireki bat da, honako hauek osatua: Tabakalerako hezkuntza taldeak, Hirikilabsek, Michaela Lamedicak, amek, aitek, neska-mutilek eta espazio mugikor bat eraikitzen interesatuta dagoen edozein pertsonak. Helburua Tabakalerako kale espazioetan ireki eta erabili daitekeen gailu bat era kolektiboan diseinatu eta eraikitzea da. Espazio erreferente bat izango da (nomada eta malgua), 0 eta 6 urte bitarteko haurren aitek eta amek hiria bizitzeko orduan dituzten premiei erantzungo diena, eta espazio horretan egoteko erak eskainiko dituen, betiere ulertuz egotea jolastea, esperimentatzea, partekatzea eta sortzea dela.

Prozesuaren lehen fasea 2016ko maiatzean hasi zen eta abendua arte luzatuko da, konfigurazio ireki bati eutsiz eta pertsona interesatuak prozesuan haren garapenean txertatu daitezzen ahalbidetuz. 0-6 Gunearen ezaugarrien eta mugen definizioa, diseinua eta eraikuntza sorkuntza parte-hartzailezko prozesu-lantegi bat da berez, ikasketa kolektiboa, esperientzia trukea eta saio-errore metodoa bezalako praktika onetan oinarritua aberastasun iturburu gisa.

Horrekin batera sortu dugun programazioan erreferentziazkoak iruditzen zaizkigun eta etorkizuneko gure 0-6 Gunea pentsatzen laguntzen diguten kolektibo eta ekimenak gonbidatu ditugu. Programazioa jendaurreko saio sorta batek osatzen du, eta ikasketa partekatuzko praktikak, hazkuntza partekatuaren aukerak eta esperientziak edo gaur egungo praktika kulturaleri lotutako hezkuntza prozesuak bezalako gaiak jorratuko dira bertan. Orain arte Iñaki Larrearen (Huhezi) eta TTipi Studioren aurkezpenak izan ditugu. Datorren ikasturtean beste eragile eta kolektiboekin elkarlanean jarraituko dugu.

Talde-eragilean parte hartu edo saio irekien gaineko informazioa jaso nahi baduzu, hona idatzi dezakezu hezkuntza@tabakalera.eu

HURRENGO DATAK

• 2016/09/14, 17:30

Zorutik

• 2016/09/21

Espazio diseinuaren 4. saioa.



feminis-

moaren

eta gor-

putzaren

pedago-

giak



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA



FEMINIS- MOAREN ETA GORPUTZAREN PEDAGOGIAK

#ikertu #birformulatu #pedagogia kritikoa #feminismoak #partekatu

Garrantzitsua iruditzen zaigu feminismoak gure hezkuntza praktikan zeharka txertatzea eta eraikuntza hegemonikoak azalaratzea ahalbidetuko duen ikasketa komun bat aldarrikatzea. Pedagogia feministen barruan, funtsezko jotzen dugu zaintzei eta afektuei arreta ematea, gorputza erdigunean, arrazoiaren maila berean, kokatzera garamatzen praktika politikoa den aldetik. Horregatik, ikasturte honetan gorpuztasunak edo munduan egoteko moduak sortzen dituzten praktika performatiboen inguruan lan egiteko interesa dugu.

FEMINISTALDIA 2016

2014ko eta 2015eko edizioetan bezala, Feministaldia 2016en parte hartuko dugu abenduan, pedagogia feministen gaineko ildoari jarraipena emanez. 2016ko uztailan egin zen irakasleekin programa, hezkuntzan estrategia feministak bilatzear zentratua, hartuko dugu berriro. Programa horrek piztu duen interesetik abiatuta, proposatzen dugu irakasleek osatutako talde bat sendotzea feminismoez eta pedagogiaz eztabaidatu, gogoeta egin eta ikertzeko.



esko-

la

**HEZKUNTZA IKERKETA
PROZESU GISA**





KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

ESKOLA

HEZKUNTZA IKERKE- TA PROZESU GISA



#ikertu #gurutzatu #partekatatu #hibridatu #birpentsatu

Erakundeetako hezkuntza alorrak pentsamendu sortzaile eta abiarazle moduan ulertzen ditugu, erakundearen “kanpoaldea” rekin lan egiteaz gain, konfigurazioa bera “barrutik” begiratzea eta zalantzan jartzea planteatzen dutenak. Horretarako, zalantzarik gabe, oso kontuan hartu behar da haren antolamendu eta ekoizpen sistema. Pedagogia alternatiboak aintzat hartzeak, kultura eredu kolaboratzaileago eta kooperatiboagoetara hedatu izanak, kultura librearen sendotzeak edo sarean lan egiteak eta praktika komunitarioek, beharrezkoa egiten dute kultur zentroetatik harreman molde berriak gauzatzearen egokitasunaz gogoeta egitea. Izan ere, hezkuntzak ahalbidetu eta sortzen baititu, giza harremanak maila askotan. Ildo horretan, funtsezkoa da pentsatzea zer motatako harremana hasten dugun pertsonekin eta, aldi berean, kritikoki begiratzea geure posizioari, hezitzaileak garen aldetik.

Garrantzitsua iruditzen zaigu ikerketa espazio bat edukitzea, bertan hezkuntza prozesuak modu ireki eta komunean ebaluatzeko. Denbora hartu behar dugu egiten dugunaz pentsatzeko, hartara distantzia kritiko bat hartzeko geure praktikarekiko, beren espezifikotasunetik hezkuntzan beste begirada batzuk proposa ditzaketan beste komunitate batzuekin sareak ehuntzeko edo lan prozesuak aberasten lagunduko duten iturri eta erreferente teorikoak kontsultatzeko.

Eskola. Hezkuntza ikerketa prozesu gisa lerroa barne praktika birpentsatzean datza, bileren, beste eragileekiko elkarrizketa edo partekatutako irakurketen bidez, eta hori zenbait programatan ere bistarazten da.

2016-17 ikasturtean abian jarriko ditugu interes horiek elikatzen dituzten zenbait sare eta proposamen. Alde batetik, hezkuntza egonaldi bat CAPP (Collaborative Arts Partnership Program) sarearekin elkarlanean egina, lankidetzazko arte praktikak hezkuntzatik birpentsatzea proposatzen duena. Bestetik, parte hartzea estatu zein nazioarteko mailako zenbait erakundek erabakitako Another Roadmap for Arts Education lan espazio eta nazioarteko sarean. Bertan lan egiten dugu gurutzaketak sortzeko hezkuntzaren, arte praktikaren eta eraldatze sozialaren artean. Azkenik, 2016an *Bake-ituna* (DSS2016EU) proiektutik abiatzen den elkarlan lerro bat zabaldu da Donostiako zenbait erakunderekin. Erakusketarako egindako hezkuntzaren arkeologia batetik abiatuta, iraganeko zenbait hezkuntza esperientzia sorta baten eguneratzean ari gara lanean, egungo testuingurura ekartzeko asmoz. *Hazitegiak* (DSS2016EU), San Telmo Museoa eta Koldo Mitxelena Kulturunearekin elkarlanean egindako lan prozesu honek, askotariko formatuekin, hezkuntzan dauden interesak biltzen ditu.

NAZIOARTEKO KONGRESUA **ARTEA, ILUSTRAZIOA ETA** **KULTURA BISUALA HAUR ETA** **LEHEN HEZKUNTZAN** **ESKOLAZ KANPOKO ZEIN BARNEKO** **BITARTEKARITZA KRITIKOA**

DATAK:
2017/06/29 > 2017/07/01

TABAKALERA



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

—

+ Info + izen-ematea:

- www.tabakalera.eu
- hezkontza@tabakalera.eu
- Informazio puntua
- 943 11 88 55

Zentroaren ordutegia.

Astelehenetik ostegunera: **08:00 - 22:00**

Ostirala: **08:00 - 23:00**

Larunbata: **10:00 - 23:00**

Igandeak eta jaiegunak: **10:00 - 22:00**

Andre zigarrogileak plaza 1,
20012 Donostia / San Sebastián
Gipuzkoa

tabakalera.eu

—



#gozatutabakalera



Gipuzkoako Foru Aldundia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián